

Aita bisitatzera

Hondarribia, 22. zk., 1988-06: 7.

Hondarribia-ko azken alean irakurri dut Maritxu Begixuri-ren biografia.

Hara, honetarakoxe ari gara egiten hilerokoa; herriko historia ezagutzeko, gaur bertan gertatzen ari direnak jakiteko, herriaren etorkizunerako agintariek dituzten asmoak ezagutzeko, eta asmo hauen aurrean herritarrek bere iritziak emoteko.

Hau da kazetaritzaren muina.

Ba nuek *Hondarribia*-ko maiatzeko alean jakin dut Maritxu nor den; neuk ezagutzen nuen, noski, baina emakume honen pertsonalitate alai eta langilearen berri ez dut izan oraintxe arte; ez nekien ihauterietan mozorrotzeko ohituera zuenik ere; eta, gehiago; hor agertzen den gizon sonbrerodun hori ikusi nuen kalez-kale, grazi handiarekin, baina ez nuen sekula pentsatu neuk ezagutzen nuen inor zenik.

Hau dena, eta beste berri asko, gure hilerokoaren bitartez jakin ahal izan ditut.

Honek esan nahi du, kazetaritza herrikoi honek baduela zentzu garrantzitsu bat; elkarren berri izateko bide polita eta behar-beharrezkoa dela gainera; gaurko *Hondarribia* ez baita 1936go herrixka, ezta mundu-gerra amaitu zeneko 1945koa, eta ezta ni neu honeratu nintzaneko 1969koa ere.

Urte hau aipatzen dut, bereziki, honi eta Maritxu Begixuri-ri lotua baitago neuk hemen azaldu nahi dudana.

Aipa izandu dut, *Hondarribiako* Enrike Albizu, pintore ospatsua, Venezuelan ezagutu nuela; han egin zituen urte batzu bere obra ederra zabaltzen; erretratu handien artean, Joseba Andoni Agirre Lehendakariarena egin zuen Caracaseko Eusko Etxearen enkarguz; erakusketa batzu ere egin zituen, eta hauetako batean erosi nion *Hondarribian* egin eta hara eraman zituen artean, erretratu bat. Askok gustatu zitzaigun kuadroa zen: arrantzale bat mahaiean eserita gazta, ogi eta porroi baten aurrean.

Aurpegi paketsu eta begirada goxoko gizona.

Oraindik ezagutzen ez nituen Onddarbiko gizon urdinetako bat.

Neuk ez nekien inoiz honeratuko nintzenik; baina uzte gabeko gauza asko gertatzen zaizkio gizakiari, eta hara nola urteak joan eta honeratzaren garen, eta harrez gero hemen oso pozik bizi garen.

Nire gogoz, betirako.

Ba, ni honera etorri berriko egun batean atea jo eta neronek ireki nuen; eta andere polit bat zen bere aitarengatik galdezka, bere aita ikusi nahi zuela. Neuk esan nion, tronpatu egin zela, han neu bizi nintzela nire familiarekin...

"Bai, biño nere aita hemen dago kuadro batean" ...

Berehala konturatu nintzen, emazteki haren begi grix-xuriak lehen beste nonbait ikusi nituela... geure saloiean egunero ikusten nuen patxara goxoko gizonaren aurpegian!...

Halaxe eskatu nion sartzeko, mesedez, eta jarri nuen Maritxu bere aitaren aurrean.